

Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.eus

## INPERNUKO POZA TXIKITIXAREN XVII. JARDUNALDIAK IRAILEKO LEHEN ASTEAN

Hamazazpigarren edizioa dute jada Inpernuko Poza Trikitixaren Jardunaldiak. Azken urteotan bezala, Donostiako Euskal Jaien egitarauaren barnean ospatuko ditugu, irailaren lehenbiziko astean.

Aurten herri instrumentuen arautzeaz arituko gara hizketan. Trikitixaren kasuan trikitixako irakasle izateko orain arte eman diren gaikuntzez haratago irakaskuntza arautura bidean eman beharreko pausuak aztertuko ditugu. Bestelako instrumentuek egindako bideak jorratuko ditugu jardunaldi hauetan, eman beharreko pausuak ezagutu nahi ditugu, esperientzia ezberdinen emaitzak mahai gainean jarriko ditugu, onurak eta alde txarrak agerian utziz horretarako gonbidatu ditugun eskarmentu handiko musikari eta musika irakasleen ahotik.

Azken urteetan legez, hitzaldi eta mahai-inguru bana prestatu ditu EHTEk.

### HERRI INSTRUMENTUEN ARAUTZEA

**EGUNA:** Irailak 5, osteguna

**ORDUA:** 19:30

**LEKUA:** Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan

**MAHAI INGURUA:** Iñaki Eguren, Ibon Koteron eta Iraide Ansorena

**Moderatzailea:** Andoitz Antzizar

Iñaki Eguren txistularia eta dultzaina jolea, gaur egun Txistulari Elkarteko presidentea da. Hernaniko musika eskolako irakasle izatearekin batera, eskola horretako zuzendaria ere bada azken urteetan.

Ibon Koteron albokari gisa ezaguna den arren, Bilboko Lur Soinuak eskolako zuzendari eta irakaslea ere bada. Albokaren ezagutzan eta zabalkundeetan lan handia egindakoa, trikitixaren munduan hain ezagunak diren "Leonen Orroak" eta "Airea" diskoetako partaide izan da besteak beste.

Iraide Ansorena perkusio jolea Euskal Herriko orkestra eta musika talde hainbatetan entzun izan dugu. Musikenen ikasketak burututa mota ezberdinetako perkusio tresnetan espezializatua denarekin batera, perkusio tradizionalen interesatu da bereziki. Perkusio irakaslea da gaur egun eta Alboka edo Khami taldeetan entzun ahal dugu.

**EGUNA:** Irailak 6, ostirala

**ORDUA:** 19:30

**LEKUA:** Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan

**HITZALDIA:** Aitor Furundarena

Aitor Furundarena musika garaikidea eta herri musika landu dituen soinu-jole eta konposatzailea da. Bere ibilbidean nazioarteko hainbat sari irabazi ditu eta orkestra ezberdinekin, bakarka edo hainbat talderekin aritua da soinua jotzen. Grabazio ezberdinak ere argitaratu ditu eta egun, besteak beste, HAUSPOZ, Euskal Herriko Akordeoi Elkarteko presidentea eta Musikeneko irakaslea da.



Argazkia: EHTE

# 11 kontuz, Angel ezagutuz

## ELKARRIZKETA: LARRAÑAGA

### Nor da Angel Larrañaga?

Besteak gozaten asko gozaten duena.

### Norengandik jaso zenuen bertsotarako afizioa?

Bertso paperetatik. Mutikoa nintzenean horretan hasi nintzen eta berehala zaletu.

### Panderoa jotzen noiz eta nola ikasi zenuen? Nor izan zenuen irakasle?

9 urterekin gabonetan erregeek ekarri zidaten lehenengo panderoa. Oraindik etxean daukat. Aitak eta izebak ere jotzen zuten panderoa, haiei begira baina nire kabuz ikasi nuen.

### Nola sortu zen *Kupela* taldea? Zer eman dizu taldeak?

Erromerietan *Epel*derekin jotzen aritzen nintzen. *Epel*dek erromeriak utzi eta *Zabal*erekin hasi nintzenean, hor sortu genuen taldea. Nire sentipenak, kantuen bidez adierazteko ahalmena eman dit taldeak, baita erromeri eta leku bereziak ezagutzeko aukera ere.

### Hainbeste urte plazaz-plaza... nola esaten zaie agur plazei? Despedidarako erromeria berezirik antolatuko duzue?

Festan eta bertsotan. Egia esanda ez da erraza agur esatea. Pena pixka batekin, baina erabaki bat hartu beharrean geunden. Izan ere, erromeriak eskaintzen dituztenentzat zailtasunak gero eta handiagoak dira. Erromeriei agur esango diet, baina bertsoekin plazetan segitzeko asmoa daukat. Momentuz behintzat ez dugu despedidarako erromeria berezirik prestatu, festan emango diogu agurra.

### Lehenengo edo oraingo erromeria nahiago?

Biak. Zaila aukeratzeko. Lehen neuk gozaten nuen dantzan; orain berriz oholtza gainera jendea dantzatuaz.



Argazkia: Ibon Erazu

### Trikiti munduan erreferente bat?

Nire gazte denboran *Maltzeta*. Orain berriz *Zabale*.

### Erromeria eskaintzeko zure plaza kuttuna? Gazteak gerturatzeko dira?

Bat aukeratu beharko banu, Zelatungo erromeria. Historia handiko erromeria lekua da, hainbeste urtetan, irailean igandero-igandero egiten dena. Azken urtetan gazte jendea gero eta gehiago azaldu da erromerietara baina Ernioko erromeri honetako giroa ezberdina da. Leku askotako jendea biltzen da; Nafarrokoa, Bizkaikoa... Berezia da.

### Oporrak pasatzeko gustuko leku bat?

Agian Ibiza. Leku asko ditut gustukoak. Nola aukeratu leku bakarra? Jai egiteko leku denak dira onak.

### Sagardoa ala ardoa?

Biak.

### Amets bat?

Bizitza bizitzen gozatzea.

## OÑATIKO XI. TRIKITI JAIALDIA

Urriaren 26an Oñatiko Santa Ana antzokian ospatuko da Oñatiko XI. Trikiti Jaialdia. Honako bikote eta hirukoteek beteko dute oholtza:

- Julen Alonso, Esti Markez eta Eneritz Aulestia
- Eneko Dorronsoro, Itsaso Elizagoien eta Xurxo Nuñez
- Xabier Alberdi *Zabale*, Beñat Landa eta Imanol Arizmendi
- Imanol Intxausti eta Unai Iñurrategi
- Edurne Iturbe, Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
- Etxabe anaiak
- Lurdes Alkorta, Pakirri eta Enaitz Alberdi

Jaialdiaren ondoren afaria izango da Pago Uso Elkartearen. Jaialdirako eta afarirako txartelak laster jarriko dira salgai. Erreserbak lizargarateelkarte@gmail.com helbidean.

## XABI ABURRUZAGA: BOST

Bost. Zentzumen oro gozarazteko moduko soinuk dakartza Xabiren bosgarren lanak. Oraingo honetan barru-barruko bidaiak egin du musikariak; amama-aititen lurretara, Palentziara, umetan egindako bidaiak gogoan ditu, eta azkenaldian kanpora egindako bidaietatik ekarritako oroitzapenak ere ez dira falta: ReelQuebecoise, Nadirren giltza, Non da Palestina, Meigas eta Zortzi Jauzi abestiak horien erakusgai. Gonbidatu ugarik lagundu diete grabaketa lanetan: Yves Lambert Trio (La BottineSouriante), Jorge Arribas eta Diego Galaz (FetenFeten), Anxo Lorenzo eta Tanxugueiras taldeko pandereteirak, Calum Stewart, Argibel Euba eta Iñigo Olazabal, Motriku, Pilar Aresti, Amaia Oreja eta Ameriketako Euskal Etxeetako ordezkariak, Mikel Markez eta Andrea Bidart. Aburruzagaren taldean dira, bestalde, Aitor Uribarri (panderoa), Koldo Uriarte (teklatuak), Jon Cañaveras (kontrabaxua), Eriz Perez (gitarra akustikoa), Xabier Zeberio (bibolina, biola eta nyckelharpa), eta Gorka Urmeneta (alboka). Diskoa irailaren amaieran aurkeztuko da eta azaroan hasiko dira zuzeneko emanaldiekin.



## IÑORKIÑAK



Taldearen aurkezpen gisa, taldearen izen bera izango du beraien lehen diskoak ere: IÑORKIÑAK. Mikel Alkorta trikitilariak, Luken Arkarazo gitarra joleak, Beñat Urteaga baxu joleak eta Jokin Irastorza bateria joleak osatzen dute laukotea. Estilo tradizionala eta modernoa uztartuz, 12 abestiz ondu dute diskoa Garate estudioetan; Kaki Arkarazoren gidaritzapean. Beraiekin izan dituzte inguruko lagunak kolaborazioak egiteko orduan: Natali Izagirre, Ixak Arruti eta Joseba Tapia (ahotsak), Igone Goikoetxea (irrintziak) eta Igor Alkorta (panderoa). Diskoaren aurkezpena irailaren 27an izango da Usurbilgo Patri jatetxean. Diskoa salgai egongo da Usurbilgo tabernetan eta Tirikitrauki musika dendan.

## XABIER BERASALUZE LETURIA: TARRAPATAN

Elkar argitaletxearekin *Tarrapatan* liburu-DVDa argitaratuko du Xabier Berasaluze *Leturiak* irailaren azkeneko astean. Liburuaren lehen zatia, panderoa ikasteko oinarritzko metodo bat da, zazpi ikasgaiz osatua, nahi duenari aste-betean panderoa ikasteko aukera eskainiz. Metodo honetan, musika zifratua edo solfeo adierazpenez gain, golpeen izenak TA eta PA bezala adierazita ageri dira, solfeoa irakurtzen ez dutenek ere ikasteko aukera izan dezaten. Liburuaren bigarren zatian, teknika gehigarriak eta zenbait aholku aurkezten dira. Metodo eta teknika hauekin tartekatuz hainbat istorio eta kritika ere azaltzen dira 1977-1984 artean Xabierrek berak bizitako bizipenekin. Gehigarrian daraman DVDak metodoa hobeto ulertzen laguntzea du helburu.



**ANGEL LARRAÑAGA****Erromeriak sasoi onean ikusten dituzu?**

Bai. Gauza asko aldatu dira eta gauzak beti doaz aldatzen. Auzoetako festak antolatzen ibiltzen direnei gehiago lagundu behar litzaie-kela iruditzen zait, hala ere. Diru gutxirekin festa asko ezin dira jarri. Laguntzen bazaie, uste dut mantenduko direla; baina laguntzen ez bazaie, ez dakit ba iraungo duten.

**Urola Kostako Hitz. 2019-07-11**

**XABIER ALBERDI ZABALE****Nola ikasten dute gaur egungo gazteek?**

Irakasteko modua asko aldatu da. Nik dena aurrez aurre eta belarriz ikasi nuen Joakin Errasti *Epelarrerekin*, gure garaian partituratik irakasten zuen inor ez zegoelako. Askok aldatu da hori orain: oraingo gazteek partituretatik ikasten dute erabat. Irakasteko modu bakoitzak abantailak eta desabantailak ditu. Partitura irakurtzen jakiteak askatasun handia ematen du irakaslearekin ez zauden egunerako, baina, bestalde, belarri ona izatea ere oso garrantzitsua da, buruz errazago irakasteko, esaterako.

**Maxixatzen (Azkoitiko herri aldizkaria)  
2019ko abuztua.**

**XABI SOLANO****Eta musikak, egin dizu ekarpenik? Zer?**

Noski, musikak gauza asko eman dizkit. Ekarpenerik handiena nire barruak hustea da, eta musika gauzak esateko eta arma moduan erabiltzea. Injustizia guztiei ezetz esateko aukera ematen digu musikak. Abesti bat egiten dugunean, zerbait esateko egitea gustatzen zait, eta, kontzertu bakoitzean abesti horiek jotzean, hustuta bukatzen dugu.

**Berria. 2019-08-11**

**TRIKITI AGENDA**

Ekimen berria jarri du martxan Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Trikitizaleentzat trikiti agenda eskaintzen hasi da astero; erromeriak, jaialdiak eta kontzertuak iragarri. Bertan erromeriak iragarri nahi dituen soinujole eta panderojoleek, aste bakoitzeko asteazkena baino lehen trikiagenda@gmail.com helbidera bidali behar dute hurrengo zazpi egunetan non eta noiz jotzen duten. Denen parte-hartzearekin agenda borobila osatzen segitu nahi da.

**UDAKO TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETAK**

2019ko udan zehar ere trikitilari gazteen hainbat txapelketa ospatu dira. Hona hemen sailkapenak:

Sanjuandegiko VII. Trikitilari gazteen txapelketa. 2019-06-01

1. Ianire Seguro eta Elaia Diaz
2. Araitx Etxaniz eta Enaitz Alberdi

Getariako XX. Trikitilari gazteen txapelketa. 2019-06-01

1. Irati Arcelus eta Sara Iriarte
2. Uxue Iturria eta Leire Iribarren
3. Ane Urretabizkaia eta Irati Arcelus

Trikitilari Gazteen IX. Txapelketa Aizarnan. 2019-06-08

1. Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte
2. Eider Garro eta Araitx Elizalde
3. Leire Uranga eta Nerea Lopetegi

Orioko X. Trikitilari gazteen txapelketa. 2019-06-29

1. Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte
2. Eider eta Lierni Tolosa
3. Irati Arcelus eta Garazi Larrañaga

Elorrioko VI. Trikitilari gazteen txapelketa. 2019-07-07

1. Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte
2. Irati Arcelus eta Mirari Plazaola
3. Araitx Etxaniz eta Enaitz Alberdi

Arroa Beheko XI. Trikitilari gazteen txapelketa. 2019-07-21

1. Eneko Urkola eta Aiora Roteta
2. Julen Labaka eta Garazi Larrañaga

Goiatzko II. Trikitilari gazteen txapelketa. 2019-08-15

1. Irati Arcelus eta Mirari Plazaola
2. Araitx Etxaniz eta Enaitz Alberdi

Zizurkilgo XV. Trikitilari gazteen txapelketa. 2019-08-15

1. Eneko Urkola eta Julene Sarabia
2. Maddi Etxeberria eta Idoia Urdangarin

Oraindik ez dira udako txapelketa guztiak bukatu. Irailaren 4an arratsaldeko 19:00etan izango da Zarauzko txapelketa eta Artadiko XXI. trikitilari gazteen txapelketa irailaren 29an arratsaldeko 18:00etan

Panderojoleek hainbat oihu egiten dituzte beren hitzok animatutako. Hara hemen horietako bat zuzolera hainbat erabiltzeko! (Datu sasu)

